

## Inmigrazioaren sikoloji ta sozioloji alderdiak

*Zeruko Argia*, 351. zk., 1969-11-23: 4.

M. Cornaton'ek *EH* aldizkarian (agorrilla-urrilla, 1969) idatzitako lana: "Aspects psychosociologiques de l'inmigration", U'tar M'ek laburtu ta euskeratua.

Gure errietako jendeak urietara etortzen diranean, eta baita lan'oiturak aldatzen dituztenean ere, izaten dituzte zailtasunak; bañan arrotz bateri oitzeko bide oiek oraindik zaillago egiten zaizkio.

Arrotz guziak ez dituzte zailtasun berdiñak izaten; ara emen etnia batzuek dituzten zailtasunen bereiztasunak.

### I. Etnien bereiztasunak

*Españarrak* errez oitzen dira; ala ere, Prantzi'ko bizi-bidea bere sorterrikoa baño konplejogoa, aberatsagoa, da, ta berritasun onek pixka bat ikaritzen ditu; lenengo pausoak aurretik etorri diran aberkideekin ematen dituzte; beren artekotasun aundia dute; senidetasuna duten edo erri batekoak diran artean alkartzen dira lenen; bertako girora oitu ta gero urteten dira bere taldetik, ordurarte ez.

*Portugaldarrak* oituak daude etxetik kanpora ibiltzen, naiz eta bere erritik kanpora ateratzen diran geien oiek baserritarrak edo erriko langilleak izan; geienetan gazteak dira, ta azken aldi onetan beñere baño nabarmenago ageri da bereiztasun au, Angela'ra eramango lituzken soldaduzkari iges egin naiean noski; portugaldarrak eskeintzen duten langillea beko maillakoa da, ta ez du españarra berdintzen, italiarra gutxiago oraindik; orduz-kanpoko lana egiteko beti gertu dago, ta nagusiarri ondo datorkio, bañan sindikatuari ez, ta langille-elkarte oiek gaizki ikusten dute; azkenez, portugaldarrak katoliku egikariak, praktikanteak, dira, españarrak ez bezelakoak.

*Italiarrak* dira atzerriko langilleen artean Prantzi'ko giro berrira errezen egiten diranak; lanean ondo dakite, ta onek laguntzen die gora-bidean; ez dute, ta bear ba da orregatixe bear ez dutelako bere arteko beste atzerritarrak dituzten elkartasunik; beren artean gero ta zakabanatuago bizi dira.

*Arjeldarrak* dira Prantzia'n lanean dauden aprikatarretik geienak; alegintzen dira bere oitura ta jantziak gordetzen; bere giro berrira oitzeko duten zailtasun nabarmen bat auxe da: bere oiturak agintzen dieten bezela, geienetan andreak etxe-zuloan egotera beartzen dituztela.

Etni bakoitzari berezkoa zaion bereiztasun oietzaz gañera ba dira, noski, danentzako berdintsu diran beste prolemak.

## **II. Atzerriratzearen zain-etentzeak**

Bere lur-toki ta bizi-bideetatik kanpora egitera beartua dagoan bizitze onek gogor jotzen du langillea.

### ***Bere lurretik ateratzea***

Atzerritik datorrena geienetan erritar bat da, erri bateko gizona. Bere lurak txikitandik moldatu duan pentsabidez eta sentikeraz egiña izan da nolabait. Bere jaioterritik ateratze onek zerbait puskatzen dio barruan. Prantzi'ra datorrenean aldakuntza aundiak astintzen dute. Bere inguru berri gzia fabrikatutako zerbait balitz bezela sentitzen du, ta ala izan gañera. Lenago bere erri osoan, zabalean, osatzen zan bere gizon arteko ta famili arteko giro ta bizimodua, orain gelatxo batean edo bian lotu bear du; bere familiaz gañerantzeko gzia atzerria da; ta atzerri etsai edo berea ulertzen ez duana beintzat.

### ***Senidearen zain-lurra galtzea***

Atzerritik datozen jende oiek alkar izaten ziran bere errian; ala bear, goseak joko ez ba zitu. Kanpora urtete onek senidetasuna pixka bat auldu du. Gero, umeak eskolan asi ta bertarakotzen ba dira, gurasoekin eten-aldi berriak sortzen dira; ez baitira neurri berdiñean giro berrira egiten. Prantzi'n billaketak erakusten digun bezela, emakumeak zaillago oitzen dira giro berrira, ez baitute umeen ikastola ta lagun biderik, eta ezta gizonak errikotzeko dituzten lan-bide ta ezagu-biderik ere.

### ***Gizarteko zain-galtzeak***

Informaziorik ez duelako-edo, geienetan atzerritik datozenak giro berria idealizatu, ederragotu, egiten dute; ta, noski, eltzen diranean ez dute berak uste aña arkitzen. Gero, berak uste zuenetatik egira dagoan tarreak bultzako die askotan bere nagusia berak esplotatzen ari dirala pentsatzera. Batek ofizio berri bat ikasiko zuala-ta ba dator, gauzak askotan bestaldera gertatzen dira; ala, atzerrian kotxeak konpontzeko mekaniko izaten ikasi nai ba zuan, arki diteke serien egiten dituzten fabrika aundi oietako batean eta tornillo batzuek eun eta milla aldiz estutzeko lan azpergarria egiten; askotan ez baidaki bere lan ori zertarako dan ere.

Len geienetan oitura zarretako legean bizi zan langillea ezin diteke kolpetik ain bakoitza-bereko ta izkuntz desberdiñeko ta bizi-leku ta irabaz-bide ta erri desberdiñetako bizi-oituretara miñik gabe egin, oitu.

Bere sorterriarekin egitazko lokarririk lotzen ez dutela, langille arrotzak lanetik kanpora daukan denbora ezer ez egiteari emango dio: pasiatzeari, zineari edo etxean geratzeari; erri-miñak askotan edari bidera ere bultzako du.

Charles Ageneau'k dionez, atzerritik datorren langille au izengabeko gizona degu. Bere errian ba zuan ba bere izen eta abizen nabarmena, bañan orain "Simca'n lan egiten duan afrikarra" da, edo "etxe aundi orretan bizi dan españarra"; gizon onek bere ixtoria galdu du, bere errian geratu da; ixtori gabeko gizona degu beraz. Ez daki bere pentsakera adierazten: naiz eta izkuntz berria erdipurdi ikasia izan bere barru-barrukoa dan esan-naia ezin du adierazi.

### III. Atzerriko langille oienganako egokerak

Prantzitarrak ba ditu gizon eta emakume oiek bere etxean artzeko erabiltzen dituan bi arpegi gutxienez: batetik, esan genezake prantzitarrak atzerritarrentzat biotz-zabalak dirala; ta esan genezake arrotz-etsaiak dirala ere.

#### *Arrotz-etsaikeriaren faktoreak*

Arrazoi batetik bestera ba daude aldeak:

- zenbat datozen; gutxi ba dira errexago artzen baitira asko ba dira baño.
- erritasuna; erri batzuetako langilleak obeto artzen dituzte besteak baño; egin diran neurketak diotenez, prantzitarrak bere errian errezago artzen dituztenak: *beljitarrak* lenengo, ta gero *suizarrak* eta *olandarrak*, mail onetan; gero, berexiago, datoz: *ipar-aprikatarrak* eta *alemandarrak*; oraindik berago, berriz, gañontzekoak: *italiarrak*, *españarrak* eta *portugaldarrak*.
- Prantzi'ak izan dituan guda-arerioetako errietatik datozenentzat ere gordetzen diran irudimenak eta susmoak ere ba dute zer-ikusia; ala, ere, ikusi degu alemandarrak beste zenbait errien aurretik doazela.
- denborak ere ba du zer-ikusia, noski: aspaldi etorritakoak errexago irentsiten dira etorri-berriak baño.
- izkuntza ez jakiteak; au faktore nabarmena da noski.
- alkarrengandiko bizi-eren diferentzia ere bereiztasunak sortzen ditu.
- kanpotarren ekonomi-galgak ere ba du zer-ikusia: goi-maillako tekniko bat, esate baterako, errezago artzen baitute be-mallako langille bat baño.
- Nola etorriak diren ere bai: ixilpean etorritakoak baño bere paperekin eta legez etorriak obeto artuak izaten dira.

#### **Azken-ondorea**

Uste degu arrotzak ez dirala berera etorriko atzerritaratze onen kultura-etenketaren zuloa bere kulturarekin betetzen ez ba dute; bere sustraietara joan bear dute berriz, ez tradiziokeri edo zarrera igesi joanarekin, baizik bere oraingo ta geroko etorria atzoko bere sustraietan ondo lotuaz; lengoa ezagutuaz eta berria ikasiaz, bere izakerik galdu gabe.

Robert Da Silva'rekin gaude onetan: "arrotzak kolpetik integratzea nai izateak ez ditu berean lotu ta gogortu baño egingo; bestetik, arrotzak bere gustoko dituzten bide edo xixtimak (teknikako mentalidadea, alkarrenganako onak diran bizi-bideak, aurrera-bideko gogoak, bizi-bideak zabaltzeko ta betiko goraldara joateko sozial-bideak) erakutsi ta gogoz artzeko bideak jartzen ba dizkiogu, bere bizi-bideko xixtima guzia aldatzen joango dira, ta bidez giro berrira egiten joango dira, oitura ta izkuntza ta guzti.

Ikasi baitegu egi sakon bat: kanpotik datozen langille oiek duten problemarik nagusiena ekonomi maillakoa da, ta gizonaren azi ta eldu naia ere bai.